

**SANTA EUFEMIA AZOKAKO TALOEN TXOSNA JARTZEKO BAIMENA ENKANTE BIDEZ
ESLEITZEKO KONTRATAZIO MAHAIAREN BIGARREN BATZARRA**

A K T E A

| | |
|---------------|---|
| EGUNA | : 2016ko irailaren 5ean |
| LEKUA | : Gizarte eta Kultura Etxean |
| HASIERA ORDUA | : 8:10 |
| AMAIERA ORDUA | : 8:40 |
| PARTAIDEAK | : AINGERU ASTUI ZARRAGA (Lehendakaria) JON IÑAKI UNANUE ASTOREKA EDURNE MARTINEZ TORRE KARMELE MUÑO A ARRIGAIN |
| IDAZKARIA | : IRATXE BARRENETXEA AIERBE |

Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko baimena enkante bidez esleitzeko deialdian eskaintza bi aurkeztu ZiraN, hain zuzen be, honako honeek:

- IÑIGO AURREKOETXEA AREVALO
- ANA M^a SISTIAGA FANO

A kartazalak zalbaduta, falta jakezan agiriak aurkezteko errekerimendua egin jaken parte hartzaile bieri.

Hori horrela, lehenik eta behin, horretarako emondako epean, lizitatzailerik eskatutako dokumentazioa aurkeztu dabela egiaztatu da.

Ondoren, lizitatzailerik bien aurrean, proposamen ekonomikoak zabaldu dira, emaitza honegaz:

- IÑIGO AURREKOETXEA AREVALO: 2.105 €
- ANA M^a SISTIAGA FANO: 2.016,16 €.

Ondorioz, txosna jartzeko baimena, diru gehien eskaini duan Iñigo Aurrekoetxea Arevalori esleitzea proposatu dau epaimahaiak.

Esleipendunak, irailaren 13rako, honako honeek egin beharko dauz:

- Aurkeztutako agiriak konpultsatu.
- Eskainitako diru kopurua ordaindu.



Eginbehar horreek egingo ez baleuz, esleipenari uko egiten deusola ulertuko da eta bigarren geratu dan lehiatzaileari egingo litzakio esleipena.

Eta gehiago barik, Batzarra amaitutzat emon da, goian aipatutako egun, ordu eta tokian, idazkari legez ziurtatzen dodana.

BATZORDEKO IDAZKARIA

